



María de Maeztu acompañada (a la izquierda) por su mejor auxiliar, Rosa Herrero.

MARIA DE MAEZTU

MARIASUN LANDA ETXEBESTE

JOAN den martxoan, emakumeen elkarte autonomo bat sortu zen, MARIA DE MAEZTU, FORUM FEMINITA izenekoa. Dirudienez, aipatutako elkarte hau, Euskal Herriko probintzietako alderdi politiko ezberdinetako emakumeek osatzen dute, eta euskal bizitza publikoa gizarte libre eta sexuaren araberrako diskriminaziorik gabekoa dute helburutzat.

Dena den, elkarte honen berri izan nuenean gehien harritu ninduen Maria de Maeztu izen ezezaguna izan zen. Nor izango ote zen?. «Pedagogo arabarra, Unibertsitatean sortzea lortu zun lehenbiziko emakumeetako, Europan eta Ameriketako nahiko ezaguna eta aztertua, aurrerakoia, feminista...» erantzun zidaten, zehaztasun handirik gabe.

Kuriositateak eraginda, Idoia Estornes historialariarengana jo nuen eta berak eskeinitako informazioaren bidez, Maria de Maeztu emakume guztiz aparta izan zela deskubritu nuen.

PEDAGOGO OSPETSUA

Maria de Maeztu 1882an jaio zen Gazteizen. Magistritzatza eta Zuzenbide ikasketak egin ondoren, Bilboko eskola batean aritu zen 10 urtetan, zenbait aldaketa pedagogiko aurrerara ateratu zuen: ikasgelatik kanpoko klaseak, jangelak eta udalekuak...

Pedagogia modernoaren aintzindaria kontsideraturik, Unibertsitatean sartu ziren lehenengo emakumeetako bat izan zen, eta laister Europa eta Ameriketako zenbait unibertsitatean ikastaroak ematen hasi zen.

Bestalde, 1920. urteko Uztailan, «Emakumeen Unibertsitarien Nazioarteko Batzarra» Londonen osatu zenean, bera izan zen Espainiako ordezkaria. Batzar hau amaitu bezain laister, Iruñean burutzen ari zen Euskal Ikasketen II Batzarrerara joan zen.

Baina kanpoko unibertsitateek eman zizkioten tituluak eta Instrukzio Publikoaren kontseilaria izan zeneko garaia alde batera utziko ditut, Maria de Maeztuk emakumeen alde eraman zuen borrokari atentzio berezia eskeini arren.

1915ean, «Nazioarteko Andereñoen Egoitza» ireki zuen Madrilén, emakumeen heziketa maila zabaldu nahirik. Era-kunde honek eragin handia izan zuen bere garaian. Hizlari ezagunak pasa ziren handik: *Ortega y Gasset*, *García Lorca*, *Menéndez Pidal*, *Marañón*, *Juan Ramón Jiménez* eta *abar luze bat*. *García Lorca*, konkretuki, Maria de Maezturen la-gun handia izan zen eta aipatutako Egoitzako tertulikide go-gotsua... Hantxe irakurri omen zuen, lehenengoz, bere «Poeta en Nueva York» olerkilaria ezaguna.

LYCEUM CLUB-a

Urte batzu beranduago, 1926an, «Lyceum Club» izeneko emakumeen kluba sortu zuen, bera lehendakaria zelarik. Honako hauek ziren aintzindari haien asmoak: «Emakumea-
rengan izpiritu kolektiboa pizten saiatuko gara, ideien elkar-trukea erraztuz eta bere onerako izango diren ekintzak bideratuz. Arte, gizarte, literatur eta zientzia arloko inizatiba eta adierazpen guztiak bateratuko ditugu kolektibitatearen onerako zuzenduz...».

Hala ere, Espainiako lehen emakumeen klub honek polemika handiak sortu zituen, ez emakumeen elkarrekin zelako soilik, kutsu laikoa eta feminista zuelako baizik. Lyceum Club-eko partaideak, askotan izan ziren irain eta erasoen biktima... Ezaguna da, Jazinto Benavente klub hartan hitzaldi ematera ukatu zenekoa: «*No quiero hablar a tontas y a locas*». Eskerrak Unamuno, Lorca, Alberti eta beste batzuk ez zirela eritzi berdinekoak izan!

Elkarte hartan, ikastaro kulturalak, erakusketak, hitzaldiak eta kontzertuak antolatu ziren, Espainiako emakumeen zokoratze eta baztertze kronikoa gaingitu nahiean.

1939an Falangek konfiskatu zuen Lyceum Club ausart hura.

HISTORIA OFIZIALETIK AT

Feminista izatea ez da inoiz gauza erreza izan. Ez atzo eta ez gaur.

Eta azken 40 urtetako Historia Ofizialak, Maria de Maeztu «ahaztu» badu, ez da Argentinan exilatu egin zelako bakarrik, feminismoak Franquismoari inolako graziazirik egiten ez ziolako baizik.

Askotan, Historia Ofizialek ez dituzte batzuk goraiatzeko eta beste batzuk zokoratzen ideologia politikoarengatik soilik, sexuaren arabera ere bai. Zeren, eskuarki, emakumeek erabat nabarmenak, ia ia «jenioak» izan behar dute Historia Ofizialean onetsiak izateko. Bestela, beren obrak, beren itzala eta ekintzak «ahaztu» egiten dira... («ahaztu», zein aditz susmogarria!). Are gehiago emakume horiek, gizarteak ezarritako papera gaingitu nahi izan dutenean. Halakoetan, gainera, irain, sermoi, edo arbuioa izaten da Ofizialtasun horrek eskeintzen diena... Esate baterako, Lyceum Club-en garaian, elizgizon batek «*mujeres sin virtud ni piedad*», «*fémimas excéntricas y desequilibradas*», deitu zien Maria de Maeztu eta bere lagunei.

«Doctor Honoris Causa» titulua zuen emakume batek merezi al zituen halako irainak ?

Maria de Maezturen pentsamoldea, arazo feministari dagokionez, sintetizatu daiteke, berak idatzirik «*Lo único que pedimos*» artikulutik aterata, «*La mujer moderna*» aldizkarian argitaratua: «Feminista naiz, ez izateak lotsatuko ninduke, pentsatzen duen emakume orok kolaboratzeko desioa sentitu behar duelako, pertsona bezala, giza kulturaren lan osoan. Eta hau da niretzat, lehen-lehenik, feminismoak esan nahi duena: alde batetik, emakumeak lan kulturalen parte hartzeko duen eskubidea eta bestetik, gizarteak eskubide horri erantzuteko duen beharkizuna».

Gerrate Zibilaren garaian exilatua, Maria de Maeztu 1948an hil zen Argentinan.